



Azpeitiko Udala

AZPEITIKO UDALAREN ETA HERRIKO MUSIKA BANDAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA (2020. EKITALDIA)

-Diru-laguntza izenduna bideratzeko hitzarmena-

Azpeitia, 2020ko maiatzaren 26an

Alde batetik **NAGORE ALKORTA ELORZA**, NAN 72.471.832-M duena, Azpeitiko Udalaren alkate-udalburua, Udalbatza Osoak 2019ko ekainaren 13an hartutako erabakiaren arabera egintza honetan parte hartzeko ahalmena hartua.

Bestaldetik, **JOSU EIZAGIRRE ARREGI** adindua, NAN zenbakia 44335233L duena. Herriko Musika Banda Elkartearen lehendakari baldintzetan hartzen du parte, elkartearen eskudun den organoak 2015eko ekainaren 9an emandako ahalmenaren arabera.

ADIERAZI DUTE

Idanik aurreko mendean herriko seme eta musiko talde batek, Udalaren laguntzarekin, abian jarri zuen, gure herriko musika mugimenduaren bilakaeran eta gure herriko historian, hain garrantzitsua suertatu den **Herriko Musika Banda**. Egitasmo honetan, halaber, ezin da ahaztu musika bandaren harrobi bikaina izan den eta den herriko Juan de Antxieta Musika Eskola.

Egitasmo honen baitan, urtez urte herriko banda etengabeko eraldaketa prozesu batean aritu da, eta horren ondorioz bere funtzionamendua aldatzen joan da. Egun, Herriko Musika Banda elkarte bat da, barne antolaketa eta funtzionamendu propioa duena. Udalaren laguntza zuzena du hainbat arlotan, eta ezinbesteko harremana herriko Juan de Antxieta Musika Eskolarekin.

Informatizazio, digitalizazio (artxibo eta partiturak) eta teknologia berriei egokitutako elkarte baten aurrean gaude. Horrek, eragin nabarmena izan du bere antolakuntzan, eraginkortasuna eta eskuragarritasuna sustatuz.

Musikoen maila eta eskaintza hobetze aldera Bandaren instrumentuak eraberritzen joan izan dira, eta lan horretan Udalak bere laguntza eskaintzen du urteko aurrekontuaren bidez.

Emankizun artistikoen arloan ere aldaketa nabarmena eman da urteetan. Elkarteko bazkide, jarraitzaile eta ikuslegoari kontzertuen eta emanaldien eskaintza hobetze aldera, herriko bandaren kideek, Juan de Antxieta Musika Eskolaren laguntzarekin, musika herrikoia alde batetik, eta musika estilo

ezberdinak jorratzen dituzte, garai berrietara egokituz.

Azken finean Azpeitiko Herriko Musika Banda elkartearen helburua, musika gure herritarren artean zabaltzea eta sustatzea da. Urtean zehar, hainbat kontzertu eskaintzen ditu, eta herriko festetan parte-hartze aktiboa du.

Udalak urtez urte elkarte honekin elkarlanean aritzeko borondatea adierazi du; Herriko Musika Banda Azpeitiko nortasunaren adierazgarri bat delako kultur alorrean.

Udalbatzak 2020ko aurrekontua onartzerakoan, eta beti ere diru-laguntzak emateko Udalaren Plan Estrategikoak jasotako irizpideetan oinarrituz, Herriko Musika Bandaren 2020ko egitasmoa laguntzea erabaki zuen, eta bere exekuzio oinarrietan dagokigun laguntza diru-laguntza espezifiko bezala jaso zuen. Diru-laguntzak emateko udal-agintarauaren arabera, beraz, zuzeneko diru-laguntza izendun baten aurrean gaude.

Alkatetzak 2020ko maiatzaren 26an onartutako Ebazpenaren bidez Musika Banda Elkartearen funtzionamendurako eta Elkarteak eskaintzen duen programazioa burutzeko 54.816,67 €ko laguntza izenduna ematea.

Horiek horrela, parte-hartzaileek, duten ordezkaritzaaren arabera, bere burua lotzeko gaitasuna dute eta hori aitortzen diote elkarri; hortaz, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 28. artikulua kontuan izanik, hurrengo lankidetzak-hitzarmena gauzatzeko, hauek erabaki dituzte:

KLAUSULAK

1.- Azpeitiko Herriko Musika Banda elkarteak hainbat kontzertu eta emanaldi eskainiko die bere bazkide, jarraitzaile eta ikuslegoari 2020ko ekitaldi honetan.

Kontzertu eta emanaldi horiek Udalaren Kultur Batzordearekin adostu den egutegian oinarrituko dira (eranskin moduan jaso da egutegia).

Kontzertuak eta gainontzeko emanaldiak urtean zehar hilero banatuko dira, herriko festa egun berezietan edota elkarrekin adostutako jai-egunetan.

2.- Kontzertuak ematerakoan ikuslegoaren erosotasuna aintzat hartuko da, eta hori horrela izanik, kontzertuen kokapena adostuko da Udalarekin, modu orokorrean aipatutako egutegiaren barruan eta kasu bereziren batean Udalaren barruan horretarako eskumen duen organoarekin.

Herriko festetan jarraituko den ibilbidea festa-jardueraren baitan zehaztuko da urtez urteko ohiturak jarraituz.



Azpeitiko Udala

3.- Herriko Banda elkarteak jarduerak burutzeko beharrezkoak dituen giza-baliabideak barne antolaketaren baitan kokatuko dira. Nolanahi ere, jarduera eskaintzeko gutxieneko kopuru bat izan behar du, eta horrela baieztatuko dio Udalari, ohiko moduan.

4.- Herriko Banda elkarteak euskararen normalizaziora begirako lanean segituko du, eta normalizazioarekin zerikusia duten beste ekimen denak zabalduko eta sustatuko dituzte.

5.- Azpeitiko Udalak, Herriko Musika Bandaren funtzionamendurako eskaintzen duen laguntzaren kalterik gabe (bandaren instrumentuak, elkarteak entseguetarako behar duen tokia, edota ekipamendua), 2020. urteko egutegian jasotako kontzertu eta emankizunak eskaintzeagatik **54.816,67 € euroko** laguntza emango dio.

6.- Hitzarmen honen iraupena 2020ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31 artekoa izango da.

7.- Kopuru osoaren ordainketa aurreratua egingo da, diru-laguntzaren helburu diren jarduerak gauzatu ahal izateko beharrezko finantzaketa delako.

8.- Laguntzaren onuradunak ez du bermerik eratu beharrik, lukrorik gabeko erakunde bat delako eta bere helburua kultura alorrean herriaren garapena duelako helburu.

9.- Laguntzaren bateragarritasuna: Diruzko ekarpena bateragarria da helburu bererako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administraziotatik edo erakunde publiko edo pribatutatik badatoz. Edozein kasutan, laguntza guztiak ezingo dute jardueraren kostua gainditu.

10.- Udalaren agintarauaren arabera Herriko Musika Banda elkarteak diru-laguntzaren onuradun izateko baldintzak bete ditu.

11.- Azpeitiko Udaleko eta Herriko Musika Banda elkarteko ordezkariak lantalde bat osatuko dute hitzarmenari jarraipena egiteko xedez eta urtean gutxienez bi aldiz elkartuko dira. Bi alderdietako batek beste bilerarik eskatuz gero ere elkartuko dira.

12.- Herriko Musika Banda elkarteak diru-laguntza ematea oinarritzen duen jarduera egin, eta behartuta dago behar bezala justifikatzea Azpeitiko Udalean.

13.- Justifikazio-kontu sinplifikatuak diru-laguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko jarduketa-memoria bat izango du, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita, bai eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduaren 75.2 artikuluko b) eta c) eta, hala badagokio, d) letretan xedatutako dokumentuak ere.

Diru-laguntza ematen duen organoak egoki iritzitako egiaztagiriak eskatuko dizkio onuradunari, diru-laguntza behar bezala aplikatu dela egiaztatzeko.

14.- Araubide juridikoa: Diru-laguntza hau, hitzarmen honetan xedatutakoaz gain, azaroaren 17ko 38/2003 Legean eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Lege horren Erregelamenduan xedatutakoaren arabera arautuko da.

Hitzarmen hau Azpeitiko Udalaren Diru-laguntza Planaren baitan dago. Bere izaera diru-laguntza izenduna da, bere helburua kulturaren arloko jarduerak dinamizatzea eta sustatzea da, herritarrei irekitako parte-hartze prozesuak garatzen lagunduz.

Lankidetzeta-hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta juridikoki Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 4.1.d) artikuluan dago sartua, eta beraz, haren aplikazio zuzenetik kanpo dago.

Ondorioz, Lankidetzeta-hitzarmen honen indarraldian sor daitezkeen auziak Administrazioako auzi-gaietarako jurisdikzioak erabakiko ditu.

15.- Diru-laguntza hau Udalaren web orrian argitaratuko da gutxienez.

Eta bi aldeek adostasunaren seinale, hitzarmen hau sinatzen dute, bertan aipatzen diren leku eta egunean.

NAGORE ALKORTA ELORZA
Udaleko alkate-lehendakaria,



JOSU EIZAGIRRE ARREGI
Musika Banda Elkartearen lehendakaria,